

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1290

573/2024 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren Ofiziala kategorian (Garraio Sanitarioaren Gidaria lanpostu funtzionala), txanda ireki bidez, estatutupeko lotura finkoa lortu duten esleipendunen izendapena (dagokion eranskinean agertzen dira zein diren esleipendunak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018an eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren. (2021eko abenduaren 14ko EHAA 248. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 25eko 966/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Ofiziala kategorian (Garraio Sanitarioaren Gidaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaprobak arautuko dituzten oinarri espezifikoak. (2022ko apirilaren 12ko EHAA 73. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 1eko 564/2024 Ebazpenaren bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta txanda irekiko destinoen esleipena argitaratu ziren Ofiziala kategorian (Garraio Sanitarioaren Gidaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, Ofiziala kategorian (Garraio Sanitarioaren Gidaria lanpostu funtzionala) izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean, zerrenda hori webgunean argitara dadin; eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAA n argitaratzeko agintzea eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla, txanda ireki bidez, Ofiziala kategorian (Garraio Sanitarioaren Gidaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian hartu beharko da destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaporte edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean

nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, ezkontideaz zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko, eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikotan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzea eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituela hauta-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkion eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, izangaiek lanpostuaz jabetzen badira, egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, esleitu zaien zerbitzu sanitarioetako erakundeetan.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa ezar dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko martxoaren 12a, asteartea

ERANSKINA
OSAKIDETZAREN LAN-ESKINTZA PUBLIKOA 2018-2019
DESTINOEN ESLEIPENA
KATEGORIA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA
TXANDA: TXANDA IREKIA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***6253**	Belasko Corraleño, Aida	Baruaide-Galdakao ESI / Lehen Mailako Arreta - Lehen Mailako Arreta / Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak / Basauriko EAG / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua - EAG - Eag gauekin	2 2022-11-20
***0749**	Pazos Sanchez, Maria Jesus	Bilbao-Basurtuko ESI / Lehen Mailako Arreta - Lehen Mailako Arreta / Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak / Deustu EAG - Begoñako EAG (IGI) - Errekaldeko EAG / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua - EAG - Eag gauekin	2
***4870**	Pardo Ayala, Jose Manuel	Barakaldo-Sestaoko ESI / Lehen Mailako Arreta - Lehen Mailako Arreta / Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak / Deustu EAG - Begoñako EAG (IGI) - Errekaldeko EAG / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua - EAG - Eag gauekin	2
***9905**	Iturbe Anuzita, Asier	Bilbao-Basurtuko ESI / Lehen Mailako Arreta - Lehen Mailako Arreta / Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak / Deustu EAG - Begoñako EAG (IGI) - Errekaldeko EAG / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua - EAG - Eag gauekin	2 2020-11-25
***4365**	Irulegui Garrastazu, Iñigo	Bilbao-Basurtuko ESI / Lehen Mailako Arreta - Lehen Mailako Arreta / Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak / Deustu EAG - Begoñako EAG (IGI) - Errekaldeko EAG / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua - EAG - Eag gauekin	2 2022-12-03
***7422**	Peral Moran, Jose Antonio	Bilbao-Basurtuko ESI / Lehen Mailako Arreta - Lehen Mailako Arreta / Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak / Deustu EAG - Begoñako EAG (IGI) - Errekaldeko EAG / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua - EAG - Eag gauekin	2

2024ko martxoaren 12a, asteartea

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***5821**	Vega Chacon, Alberto	Trasf. Giza Eh. Euskal Z. / Transfusioak eta Giza Ehunak - Transfusioak eta Giza Ehunak / Donazioen Unitatea - Donazioen Unitatea / Transfusioa eta Giza Ehunak EZ / 2 Txanda - 2 Txanda, bestelakoak - Ez espezifikoko gehiago	2 2020-12-03
***3372**	Ocharri Sierra, Iñigo	Trasf. Giza Eh. Euskal Z. / Transfusioak eta Giza Ehunak - Transfusioak eta Giza Ehunak / Donazioen Unitatea - Donazioen Unitatea / Transfusioa eta Giza Ehunak EZ / 2 Txanda - 2 Txanda, bestelakoak - Ez espezifikoko gehiago	2
***9534**	Gutierrez Hernandez, Javier	Trasf. Giza Eh. Euskal Z. / Transfusioak eta Giza Ehunak - Transfusioak eta Giza Ehunak / Donazioen Unitatea - Donazioen Unitatea / Transfusioa eta Giza Ehunak EZ / 2 Txanda - 2 Txanda, bestelakoak - Ez espezifikoko gehiago	2
***0891**	Corral Rodriguez, Juan Manuel	Trasf. Giza Eh. Euskal Z. / Transfusioak eta Giza Ehunak - Transfusioak eta Giza Ehunak / Donazioen Unitatea - Donazioen Unitatea / Transfusioa eta Giza Ehunak EZ / 2 Txanda - 2 Txanda, bestelakoak - Ez espezifikoko gehiago	2
***4941**	Gonzalez Sueskun, Jose Javier	Trasf. Giza Eh. Euskal Z. / Transfusioak eta Giza Ehunak - Transfusioak eta Giza Ehunak / Donazioen Unitatea - Donazioen Unitatea / TGEZ - Vitoria-Gazteiz / 2 Txanda - 2 Txanda, bestelakoak - Ez espezifikoko gehiago	2 2023-05-20
***6914**	Hidalgo Mayo, Jose Maria	Trasf. Giza Eh. Euskal Z. / Transfusioak eta Giza Ehunak - Transfusioak eta Giza Ehunak / Donazioen Unitatea - Donazioen Unitatea / Transfusioa eta Giza Ehunak EZ / 2 Txanda - 2 Txanda, bestelakoak - Ez espezifikoko gehiago	2
***5243**	Latazu Batarrita, Ibon	Trasf. Giza Eh. Euskal Z. / Transfusioak eta Giza Ehunak - Transfusioak eta Giza Ehunak / Donazioen Unitatea - Donazioen Unitatea / TGEZ - Vitoria-Gazteiz / 2 Txanda - 2 Txanda, bestelakoak - Ez espezifikoko gehiago	2